

KOSTU EGITURA

Edozein enpresak gastuak dituen moduan gureak ere baditu. Gastu batzuk finkoak dira eta beste batzuk aldakorrak.

Kostuak hainbestekoak izan ez daitezzen gure kostuak minimizatzen saiatu gara; horregatik oraingoz etxetik egiten dugu lan eta gure ekipo informatikoarekin, batzuetan batera egingo dugu lan eta beste batzuetan bakoitzak bere etxetik; baina hala ere badaude kontuan hartu behar ditugun gastu batzuk.

- Kostu finkoak: oraingoz kostu finko bakarra gure aplikazioan parte hartzen duten beste aplikazioei ordaindu behar dieguna da. Etxetik lan egiten dugunez ez dugu alokairurik ordaindu behar.
- Kostu aldakorrak: oraingoz Maitem enpresak ez dauka kostu aldakorrik.

Bestalde gure proiektua martxan jarri ahal izateko hasieran inbertsio handi bat egin beharko dugu; izan ere hasieran inongo irabazirik gabe gurekin lan egingo duten hornitzaileei ordaindu beharko diegu.